

ERDI AROKO KONSTITUZIO AFRIKARRA




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Afrika, XII. mendea. Ghanako Inperioak gainbehera egin zuen almorabideen etengabeko inbasioen eraginez. Orduan, sossoen errege Sumanguru Kantek Ghanako hiriburu zaharra hartu zuen, botere hutsunea baliatuz. Eta lurraldeak konkistatzen jarraitu zuen Mandeneraino, mandingen lurralderaino.

1235ean Sundiata Keita mandingen printze erbesteratuak koalizio bat osatu zuen inguruko erresuma txikiek sossoei aurre egiteko. Eta urte hartan bertan mandingek Koulikoroko gatazka irabazi eta Maliko Inperio boteretsua sortu zuten, Sundiata Keita mansa (enperadore) izendatuta.

Garaipenaren ondoren, lurralde zabala antolatu eta lege-multzoa sortu behar zen. Hala, enperadorea eta jakintzuen kontseilua Kurukan Fugan bildu ziren 1236an Mandeneko Gutuna idazteko; munduko konstituzio zaharrenetakotzat jo daiteke. Hitzaurrea eta 44 artikulua dauzka gutunak eta besteak beste, aniztasunean oinarritutako bake soziala, hezkuntzarako eskubidea, elikadura segurtasuna, esklabotzaren abolizioa eta adierazpen askatasuna jasotzen ditu. Ziurrenik praktikan kontraesanak eragin zituen legeon aplikazioak; XVI. mendean inperioak gainbehera egin zuen arte, Maliko mansak munduko pertsonarik aberatsenetakotzat zeuzkaten eta hori ez da ondo ezkontzen berdintasunarekin. Hala ere,



Maliko Inperioa, XIV. mendeko Afrikako mapa batean. Tronuan eserita dagoena Musa I.a (1280-1337) enperadorea da.

gutunak askoz berriagoak diruditen kontuak jasotzen ditu.

“Pertsona guztiek dute bizitzeko eskubidea. Ez dago besteen gainetik dagoen pertsonarik”. Eta emakumeak barne hartzen zituen baieztapen horrek: “Ez itzazu emakumeak iraindu, gure amak dira. Gure kudeaketa lan guztietan parte hartu behar dute”. Baita esklaboak ere: “Hemendik aurrera inork ez dio hurkoari mozala ahoan jarriko merkatuan saltzeko. Esklabotzaren oinarria gaur bertan itzaliko da”.

Esan bezala, hezkuntza eskubidea jaso zuen testuak: “Haurren heziketa gizarte osoaren ardura da. Guztiok zuzendu eta

zaindu behar ditugu haurrak”. Eta adierazpen askatasuna ere bai: “Esan nahi duena esateari esker bizi da espirtua”.

Ingurumena hizpide zuten legeek halaber: “Basoak zaindu behar dira guztion zorionerako. Zuhaitza bati su eman aurretik, jaso burua eta begiratu zuhaitzen adaburuei”. Dibortzioa legezkota zen eta “ezkontideetako batek eskatuta” ematen zen. Eta lapurretaren kontzeptu interesgarria zuten: “Jateko beharra asetzea ez da lapurreta, gosea arintzeko behar adina soilik hartzen bada”.

Bitartean, European, mende mordoa falta zen giza eskubideen aldarrikapena “asmatzeko”. ■



PAESTUM MUSEO ARKEOLOGIKOA

Sibarisko mokofinak

Akeoek, K.a 720. urte inguruan, Magna Greziako kolonia nagusietakoa fundatu zuten Italiako botaren zolan: Sibaris. Miletorekin eta Etruriarekin merkataritza bizian hasi ziren berehala, eta Tirrenoko kostalderaino zabalduko zuten beren eragina. Oparotasun hark sibiriten izaera taxutu zuen: lana gutxiesten zuten, eta luxua maite; errementariak eta arotzak

debekatu zituzten, lan giroa zabalduko zuten beldur; oilarrak ere galarazita omen zeuden, ez baitzuten goiz iratzartzeko beharrik; eta ilea urrezko lokarritz lotzen omen zuten. Hiria K.a. 510. urtean suntsitu zuten, eta Kratis ibaiaren bidea aldatu zuten urak eta lohiak hiria estal zezaten. Baina “sibarita” mokofinaren sinonimo da orduz geroztik. ■